

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Etxabarri Ibiñako industriarako hiri lurzoruaren SAUI-3 sektorea urbanizatzeko proiektuaren aldaketa onartzea

Alkatetzaren 2026ko otsailaren 13ko 57 zenbakiko ebazpenaren bidez, Etxabarri Ibiñako industria-hiri lurzoruaren SAUI-3 sektorea urbanizatzeko proiektuaren 5. Proiektu bategina onartzea erabaki da, Magna Servicios Generales SLk sustatuta.

Onespen horrek zenbait aldaketa jasotzen ditu, funtsezkoak ez direnak, Alkatetzaren 2023ko irailaren 26ko 417 zenbakiko ebazpenaren bidez behin betiko onartutako proiektuarekiko.

Administrazio-bidea amaitzen duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke txandaka dagokion Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik harako bi hilabeteko epearen barruan, edo, bestela, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik harako epearen barruan.

Ondategi, 2026ko otsailaren 18a

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA